



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2020/06/18an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 18/06/2020.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Ander Errarte del Pozo
Iñaki Kerejeta Gorostiza

Idazkaria

Edurne Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko ekainaren 18an, arratsaldeko 18:30ean, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla, bildu da Udalbatza, ez ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:30 horas del día 18 de junio de 2020, quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

**2020/06/18
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario**



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2020ko ekainaren 12ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

2.- AURREKO ERABAKIA BALIOGABETZEA ETA JOSE ARANA FUNDAZIOAREN PATRONATURAKO KIDE BERRIA IZENDATZEA.

Udalbatzarrak, 2019ko uztailaren 23an egindako Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez, "Fundación Patronato José Arana de Eskoriatza- Jose Arana Patronatuko Fundazioko" patronatuko kide izendatu zuen Anabel Legaz Canflanca PSOEren ordezkari gisa.

Fundaziotik jakinarazi zenez, izendatutako kide hori Fundazioko ordezkariekin harremanetan jar zedin -Patronatu berria Fundazioen Erregistroan inskribatu ahal izateko- egindako ahalegin guztiak huts egin zuten.

Jasota dago 2020ko urtarrilaren 22an Fundazioak burofax bidez idazki bat jakinarazi ziola, eta bertan esaten ziola 15 eguneko epean harremanetan jartzen ez bazen beraiekin, karguari uko egiten ziola ulertuko zela.

Epe hori igarota, Jose Arana Fundazioak jakinarazi du ez zaiola kasurik egin bidalitako burofaxari.

Kargua berariaz onartzea eta, ondoren, dagokion erregistroan inskribatzea Patronatuaren funtzionamendu normalerako nahitaezko izapidea denez, Udal honek, 2020ko otsailaren 29an, jakinarazi zion eraginik gabe uzten zuela 2019ko uztailaren 23ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez egindako izendapena, eta Eskoriatzako PSOE alderdi politikoari 5 eguneko epea ematen zion beste hautagai bat proposa zezan, eta ohartarazten zitzaison epe hori igarota izendapen berririk egin gabe, Udalean ordezkaritza duen beste alderdi politikoren bateko ordezkaria izendatuko zela Patronatuko kide berri bezala.

Bigarren epe hori ere igaro da Jose Arana Fundazioko Patronatuko kide izateko PSOEk beste kideren bat aurkeztu gabe.

Fundazioa arautzen duten estatutuetako 7. artikulua ikusi da, hitzez hitz honakoa xedatzen duena:

"... Zazpi alderdi baino gutxiago izanez gero, edo ezin badira bete zazpi udal ordezkariak, D'hondt legea aplikatuko da azken udal hauteskundeak kontuan izanda zazpi udal ordezkari lortu arte..."

D'Hondt Legearen arabera, ESKORIATZAKO EAJ/PNV taldeari dagokio beste ordezkari bat izendatzea PSOE taldeko ordezkariaren ordez, eta ESKORIATZAKO EAJ/PNVk Ana Belen de Castro Ramos izendatzea proposatzen du. Hori horrela, Osoko Bilkurak, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta bertaratutako zinegotzi guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU::

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

**2020/06/18
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario**



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Lehenengo.- Aurrekarietan azaldutako arrazoiengatik, BALIOGABE UZTEA Anabel Lega Canflancaren izendapena Jose Arana Fundazioren Patronatuko kide izateko.

Bigarrena.- Jose Arana Fundazioaren Patronatuko kide berri bezala, ESKORIATZAKO EAJ/PNV taldearen ordezkaritzan, Ana Belen de Castro Ramos izendatzea.

3.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRASIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRASIO OROKORRAREKIN 2017ko MARTXOAREN 24an ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018ko ABENDUAREN 5ean SINATUTAKO ADMINISTRASIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO LANKIDETZA-HITZARMENEI ATXIKITZEA.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengo.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko izenpetutako lankidetza-hitzarmenei atxikitzea, honako baldintza hauetan, aplikagarri zaion guztian:

- 2017ko martxoaren 24an, Estatuko Administrazio Orokorrarekin, lehenengo baldintzaren 2. apartatuaren arabera; 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (76. zk.) argitaratua.
- 2018ko abenduaren 5ean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, lehenengo klausularen 2. apartatuaren arabera; 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (245. zk.) argitaratua.

Bigarrena.- Eskoriatzako Udalak bi hitzarmenak ezagutzen eta onartzen ditu, erreserbarik gabe, atxikitzearekin lotuta aplikagarri zaion guztian, eta konpromisoa hartzen du hitzarmen horietan ezarritako betebeharra betetzeko, alderdi sinatzaileek administrazio elektronikoko oinarrizko soluzio teknologikoak eskuratu eta erabiltzeari dagokionez, edo etorkizunean horiek eguneratu edo aldatzen dituztenei dagokienez. Bere gain hartzen ditu, bere eskumenen esparruan, Gipuzkoako Foru Administrazioari ezarritako betebeharra.

4. COVID-19aren ONDORENGO BERRERAIKITZE PROGRAMA.

Hitza eman ondoren, honako parte hartzte hauek izan dira:

- Josu Ezkurdia: (hitzez hitz jasotzen da esandakoaz Josuk berak emandako testua)
Programa honen berri eman aurretik, beste udal taldeen jarrera baikorra eta ekarpenak eskertu nahi ditugu, benetan sinesten dugulako lan asko kostatu zaigun aurrera ateratzea

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

programa honek guztion babesia behar duela Eskoriatza gure herria aurrea atera ahal izateko.

Aurreikuspenen arabera, diru-sarrerak milioi bat eurotik gora jaitsiko dira, hau da, hasierako aurrekontuaren % 20.

Diru-sarreren murrizketa gastuen aurrekontuari aplikatu ondoren, eta gastatutako edo konprometitutako zenbatekoak deskontatu ondoren (funtsean, urteko indarraaldiarekin sinatutako kontratuak), eta udal teknikarien proposamenen arabera beharrezkotzat jotzen diren gauzatzepartidak doitu ondoren, 36.000 € inguruko aurrekontu-superabita lortu dugu.

Jakina, hori lortu ahal izateko, murrizketa hainbat partidatan planteatu da. Gastu-kapituluen arabera, gehien jaisten direnak inbertsioak eta gastu arrunta dira.

Pandemia gure gizartearen, gure enpresa-ehunean, saltokietan eta ostalaritzako negozioetan izaten ari den ondorioei aurre egiteko, 540.000 € inguru bideratzea planteatzen dugu, bost jarduera-ardatzetan bildutako hainbat programatara.

JARDUERA-ARDATZAK - Post COVID programa

1. Egoera ahulenean dauden sektoreei laguntza.
2. Ekonomia suspertzeko txoke-neurriak.
3. Gizarte eta kultura jarduera segurua berreskuratzea.
4. Pandemiaren prebentzioa.
5. Klima-alдaketari eustea.

Programaren helburua da, gainera, 72.000 euro gehiago mugiaraztea tokiko erosketetan, udalak finantzatutako erosketa-bonuen programaren bidez. Horrela, udal-jarduera eta ekonomiaren suspertzearen eragin bateratuta 600.000 €-tik gorakoa izango da.

Nabarmendu behar da, 4. ardatza izan ezik, gizarte eta kultura jarduera berreskuratzera bideratutakoa, programa guztiek gehikuntza handiak eragiten dituztela lotutako gastu-partidetan.

Programaren finantzaketa dagokionez, zati bat udal-aurrekontua birdoitzetik lortutako aurrezkiekin egingo da (36.000 €), eta gainerakoa diru-gerakinaren bidez edo zorrera joz finantzatuko da (460.000 €).

(kontuan izan behar dugu, geroago ikusiko dugun bezala, jarduera-ardatz batek diru-sarrerak 53.000 € inguru murriztea dakarrela).

GIZARTE BABESA.

Jarduera-ardatz honen helburua kolektibo eta pertsona behartsuenen babesia areagotzea da. Kontuan izan behar da konfinamendua eragindako ekonomiaren geldialdia, eskoriatzar asko eta asko babesgabetasun-egoeran eta baliabide ekonomiko txikiagoekin utzi dituela.

Lagundu egin nahi diegu, beste egoera problematiko batzuk ahaztu gabe, hala nola drogazaletasunaren aurkako borroka edo garapen bidean dauden herrialdeekiko elkartasuna, eta, beraz, zatituta daude, eta ez dute ia murriketarik izan.

Programa berri bat ere planteatzen dugu, irailetik aurrera garatu beharko dena, gure Jaurlaritzako ikastetxeekin eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzen, seme-alabek modu telematikoan ikasteko zailtasunak dituzten familiei laguntzeko.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Hauek dira proposatutako programak:

- gizarte-larrialdieta rako programetarako zuzkidura handitzea, 4 laguntza-lerro.
- hezkuntzan pobrezia digitalari aurre egiteko programa berria.
- droga-mendekotasunaren prebentzioa.
- nazioarteko elkartasuneko programa.

BERTAKO EKONOMIA GARAPENA.

Jarduera-ardatz honen helburua tokiko ekonomia eta hurbileko erosketa suspertzea da, udalerrian lanpostuak mantentzen lagunduz eta gure auzoak bizirik mantentzen lagunduz.

Hauek dira proposatutako programak:

- *udal tasak eta zergak barkatzea eta/edo hobaria ematea: terrazen gaineko zergaren % 100eko salbuespena eta lehen seihilekoko hondakin-bilketaren tasaren % 95eko hobaria, gelditu behar izan diren jardueretarako, hau da, 20-50 taldeetako guztiak, 30-31 (elikadura-dendak) eta 35 (bankuak eta aseguru-eteak) taldeak eta 251 (estankoak), 252/263 (farmaziak) eta 253 azpitraldeak izan ezik.*
- *babes-elementuen stocka mantentzea, beharrizan-egoera puntualen aurrean.*
- *tokiko ekonomia sustatzeko erosketa-bonuak: Udalak jartzen duen euro bakoitzeko, 2€ ko erosketa induzitzen da guztira tokiko mailan (%50ko diru-laguntza). Programari atxiki ahal izango zaizkio Eskoriatzan egoitza fiskala duten ostalaritzako, jatetxeetako eta zerbitzuetako enpresak, itxita egon badira edo konfinamendu-aldean gutxienez %50 jaitsi bada fakturazioa.*
- *inbertsio publikoa sustatu: obra eta lan txikiak bertako enpresei kontratu, irisgarritasuna eta auzo eta elizateko hobekuntzak eta udal eraikuntzetan egin beharrekoak.*
- *zuzeneko laguntza-programak: gaur egungo biak mantentzen ditugu (alokairuak, irudi korporatiboa...) eta beste bat sortzen dugu Eskoriatzan 20 langile baino gutxiagoko egoitza fiskala duten enpresentzat, erosketa-bonuen programan jasota ez dauden sektoreetan.*

ESKORIATZA BIZIRIK.

Jarduera-ardatz honen helburua gure udalerriko bizitza soziala eta kulturala suspertzea da. Nolanahi ere, programa horietan nabarmen murritzten da partiden zenbatekoa, oro har, gainerako ardatzek lehentasuna dutela iritzita. Hala eta guztiz ere, aurrekontu eguneratuetan tokiko elkarteei laguntzen jarraitzeko egiten den ahalegina azpimarratu nahi dugu, % 80an mantentzen baita oro har. Musika Eskolak % 100ari eusten dio, Eskoriatza Kirol Elkarteak % 90ari eta Egoitzak % 40 handitzen du laguntza.

Hauek dira proposatutako programak:

- *Udalak bultzatutako jarduerak.*
- *Herriko elkarteei laguntzea.*

OSASUN ZAINTZA.

Jarduera-ardatz honek koronabirusaren etorkizuneko kimuak geldiarazi nahi ditu, batez beste. Kutsatze posibileen hedapena geldiarazteko funtsezko eragileak pertsonak badira ere, Udalak eraikin publikoetako kontingentzia-planak ezarri behar ditu, eta horietan segurtasun-elementu eta -neurri egokiak erraztu eta inplementatu behar ditu.

Hauek dira proposatutako programak:

- *Udalaren kontingentzia-plana: protokoloak, segurtasun-ekipamenduaren erosketa eta udal-langileentzako autobabes-elementuak.*
- *Bide publikoak eta udal-eraikinak garbitzea eta desinfektatzea.*

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

ESKORIATZA JASANGARRIA.

Pandemiaren ondorioak gainditzeko borrokan jarraitzen badugu ere, ezin dugu ahaztu gizarte gisa daukagun beste erronketako bat aldaketa klimatikoaren aurkako borroka dela. Horregatik, gure udalerria berreskuratzeko proposamen honek ez du alde batera utzi nahi inoiz erabakigarría izan ez den gai bat.

Hauek dira proposatutako programak:

- *Udal-instalazioen efizientzia energetikoa hobetzea.*
- *Argiztapen publikoko sarearen kudeaketa hobetzea eta optimizatzea.*
- *Udal Agenda 21en garapena.*

Ander Errarte bilkurara batu da 18:55ean.

Jarraian, Nestor Aranak eskerrak eman dizkio gobernu-taldeari egin duen lanagatik, eta aurreratu du bere taldearen bota aldekoa izango dela, uste baitute aurkeztutako programan planteatzen diren neurri guztiak lehenbailehen jarri behar direla abian, eta, horretarako, bere taldeko zinegotzien lankidetza osoa izan dezaketela. Bere taldeak zenbait kezka dituela adierazi du, eta klima-aldeketa aipatzen du, egoitzaren egoera, baina dagoeneko aurreikusten direla hainbat neurri horiei buruz. Horrez gain, gaineratu du ez dakitela etorkizunean zer gertatuko den, beste berragerpen bat egongo den ala ez; baina, edonola ere, ikastetxeekin batera beharrezko neurriak hartu behar direla prest egoteko eta gazteei ikasturtera normaltasun osoz itzuliko direla bermatzeko. Lehen sektoreari laguntzeko beharra ere aipatzen du, sektorea berraktibatzeko, eta udalerriko merkataritza-establezimenduei laguntzea komeni dela, itxita egon diren ala ez kontuan hartu gabe; izan ere, neurri handiagoan edo txikiagoan, guztiekin izan dute kalte ekonomikoa COVID-1 pandemiarekin.

Iñaki Kerejetak esan du ados dagoela programan aurreikusitako neurriekin, eta alde bozkatuko duela.

Eztabaida amaituta, bozkatu egin da, eta Udalbatzarrak aho batez erabaki du honen eranskin gisa doan “COVID-19aren ondorengo berreraikitze programa” onartzea.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

5.- 2020ko ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEA.

COVID-19aren ERAGIN EKONOMIKOAREN ONDORIOZ

Eskoriatzako Udalak malgutasun neurri fiskal jakin batzuk hartzeko beharra ikusten du, COVID-19ren osasun-krisiaren ondoriozko egungo egoerak Eskoriatzako ekonomian eta enpleguan eta, zehazkiago, saltokiengan, autonomoengan eta enpresariengan duen eragin ekonomiko negatiboari erantzuteko.

Hala, Udal Finantzaketa rako Foru Funtsak 2020ko konturako ekarpenak aldatzen dituen eta tokierakundeentzako aurrekontu- eta zerga-neurriak ezartzen dituen maiatzaren 12ko 3/2020 Foru Dekretu-Arauaren 3. artikuluaren babesean, indarrean dauden zerga-ordenantzei buruz proposatzen diren ezohiko zerga-neurriak honako hauek dira:

1.- MAHAIAK EDO TERRAZAK

2020. urtean zehar, bide publikoko lurzoruaren erabilera publikoa edo mahaiak, aulkia eta irabazteko asmoz antzeko beste instalazio batzuk jarrita aprobetxamendu bereziagatiko tasaren (terraza-tasa ere deitzen zaiona) indarraldia etetea.

2.- HIRI HONDakin SOLIDOEN BILKETA

Hiri-hondakin solidoa bildu, garaiatu eta birrintzeko zerbitzu mankomunitatugatiko tasaren % 95eko aparteko hobaria ezartzea 2020ko lehen seihibekorako, kategoria, talde eta azpitalde hauetan sailkatutako zergadunei: (GORRIZ JARRITAKOAK)

1. KATEGORIA. Etxebitzta partikularra.	Azpitaldea
10. taldea. Etxebitzta partikularrak	
Etxebitzta partikularrak	101
2. KATEGORIA. Biltegi eta komertzioak	
20. taldea. Biltegiak, oro har	

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Biltegiak, oro har	200
Olio biltegiak	201
Edari biltegiak	202
Kolonialen biltegiak	203
Pentsu biltegiak	204
Paper eta pintura biltegiak	205
Produktu industrialen biltegiak	206
Egur biltegiak	207
Burdin biltegiak	208
21. taldea. Arropa dendak	
Boutique eta konfekzioa	210
Artile dendak	211
Kinkila dendak (mertzeria)	212
Moda dendak	213
Ehun dendak	214
Tindategiak eta garbitegiak	215
Zapata dendak	216
Aterki, goardasol eta kapela dendak	217
22/23. taldea. Luxuzko artikuluak eta apaingarriak saltzeko dendak	
Arma dendak eta ehiza-arrantza artikuluak	220
Kirol artikuluak	221
Drogeriak	222
Bitxi dendak	223
Jostailu dendak	224
Liburu dendak	225
Ile-apaindegiak eta edertze aretoak	226
Lurrin dendak	227

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Opari dendak	228
Erlaju dendak	229
24. taldea. Etxea hornitzeko dendak	
Elektrizitate dendak	240
Elektratresna dendak	241
Burdindegia eta brikolaje dendak	242
Altzari dendak	243
Paper eta pintura dendak	244
Saneamendurako artikuluen dendak	245
25. taldea. Kontsumorako artikuluen dendak	
Ikaztegiak	250
Estankoak	251
Farmaziak	252
Okindegiak	253
Egunkari eta aldizkarien salmenta	254
Kiniela salmenta	255
26/27. taldeak. Jarduera profesionaletarako lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektoak eta ikerketa bulegoak	261
Dentistak	262
Farmaziak	263
Argazki dendak	264
Gestoriak eta autoeskolak	265
Apaindegiak	266
Inprimategiak	267
Medikuak	268
Notariotzak	269

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Bulegoak eta sindikatuak	270
28. taldea. Zerbitzuetarako lokalak	
Eskolak, ikastetxeak, ikastolak, haurtzaindegia eta irakaskuntzarako beste lokal batzuk	280
Elizak, kaperak, gurtzarako lekuak, komentuak	281
Eraikin publikoak: Udalarenak, Mankomunitatekoak, probintziakoak, Eusko Jaurlaritzakoak, merkatuak, hiltegiak	282
Bibliotekak, kultur aretoak, erakusketa aretoak, kirol elkartea	283
Kirlodegia, igerilekuak, kirol zentroak, futbol zelaiak, zezen plazak	284
Jubilatuen elkartea, zaharren egoitzak	285
3. KATEGORIA. Ostalaritza, Elikagaiak eta Zerbitzuak	
30/31. taldeak. Elikagaiak	
Hegaztiak eta arrautzak	300
Karameluak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozo dendak	304
Ekonomatoak	305
Fruta dendak	306
Pasteleriak	307
Arrandegiak	308
Supermerkatuak	309
Janari-dendak, ultramarinoak	310
Esnea saltzeko dendak	311
32. taldea. Ostatu-ematea	
Ostatuak	320
Fondak	321
Hostalak	322

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Hotelak	323
Pentsioak	324
Erresidentziak	325
33. taldea. Edaritegiak	
Bar-ak	330
Upategiak	331
Kafetegiak	332
Klubak	333
Pubak	334
Snack-Bar	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337
34. taldea. Jateko lekuak	
Merenderoak	340
Jatetxeak, Self-serviceak	341
Elkarte gastronomikoak	342
35. taldea. Zerbitzuak	
Bidaia agentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki kutxak	352
Aseguru etxeak	353
Posta bulegoak, telefonoak, epaitegia, polizia, Ertzantza	354
4. KATEGORIA. Industria jarduerak eta zerbitzuak	
40. taldea. Industria produktiboak	
Aroztegiak, zerrategiak, altzaritegiak	400
Errementeriak, fundizioak	401
Soldadura	402

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Sopletistak	403
Fabrika eta industriak, oro har	404
Trokeleriak, moldeak eta matrizeak	405
Auto konponketa	406
Iturginak	407
41. taldea. Aisialdiko industria	
Zine aretoak	410
Dantzalekuak	411
Joko aretoak	412
Antzokiak	413
42. taldea. Zerbitzuak	
Garajeak -negozioa	420
Ibilgailuen konponketa	421
Hornikuntza industrialak	422
Garraio agentziak	423
Garbiketa enpresak	424
5. KATEGORIA. Aurrez hitzarturiko zerbitzuak	
50. taldea. Aurrez hitzarturiko zerbitzuak	
Aurrez hitzartutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak	502
Anbulatorioak	503

Neurri horiek eragina izan dezaten, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta,
Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Lehenengoa.- Erabaki honen aurrekarietan proposatutako aldaketak onartzea.

Bigarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharak egin ditzan.

Hirugarrena.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egin ez balitz.

ZERGA KUDEATU ETA KOBRAZKO AUTOLIKIDAZIO SISTEMA EZARTZEKO

Onartu dezan Udalbatzarrari laster aurkeztu nahi zaion TRAMITEEN ESKULIBURUA egiterakoan ikusi da komenigarria dela aukera ematea zergadunari, eskaera jakin batzuk egiteko unean, bere ordainketa-gutuna sortzeko eta ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hori guztiiori modu gidatuan eta eguneko edozein unetan egin ahal izatearen abantailarekin.

Sortutako autolikidazioa inprimatu eta H@ZI zerbitzuan edo edozein banku-erakunde laguntzailetan ordaindu ahal izango litzateke.

Zenbatekoa eta kalkuluaren sinpletasuna kontuan hartuta, interesgarritzat jo da autolikidazio sistema ezartza tasa hauetan:

1.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

- Hirigintza konsulta.
Hirigintza lizentzia ematea “obra txikiaren jakinarazpena” kontzeptuan sartzen diren obretarako.
Aurretiazko jakinarazpenaren pean dauden jarduerak eta instalazioak.
Jardueraren titularra aldatzeko jakinarazpena.
Eraikinen azterketa teknikoan (EAT) erregistratzea.

2.- ERAIKUNTA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA.

- Hirigintza lizentzia ematea “obra txikiaren jakinarazpena” kontzeptuan sartzen diren obretarako.

Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 27.1 artikuluak aurreikusten badu ere tasak autolikidazio-sistemaren bidez eskatu daitezkeela, eta 103.4 artikuluak aurreikusten badu ere Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga autolikidazio-sistemaren bidez eskatu daitekeela, zerga bakoitza arautzen duen ordenantza fiskalak ezarri behar du berariaz sistema hori.

Aurrez esandako guztia ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

LEHENENGOA.- EIOZA eta Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea:

ERAIKUNTA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

- Honako hau dioen lekuan:

VII. KUDEAKETA

11. artikulua.

Derrigorrezko lizentzia ematen denean, behin-behineko likidazioa egingo da eta zerga oinarria interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zehatztuko da aurrekontu hori dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi badu; horrela ez balitz, zerga oinarria udal teknikoek zehatztuko dute proiektuaren kostu estimatuaren arabera.

Honako hau esatea:

VII. KUDEAKETA

11. artikulua. Behin-behineko likidazioa – Autolikidazioa.

1- Obra txikien kasuan, H@ZIn bertan emateko lizentzia eskatuz gero ("obra txikien jakinarazpena" gisa ere ezagutzen dena), Udalak autolikidazio-erregimenean eskatuko du zerga hori ordaintzea jakinarazpena eskatzen den unean, interesdunek aurkeztutako aurrekontua oinarri hartuta.

Obra handietarako lizentziak eta obra txikietarako gainerako lizentziak eskatzen direnean, lizentzia ematen den unean egingo da behin-behineko likidazioa.

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

LEHENENGOA.-

- Honako hau dioen lekuan:

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Toki Administrazioak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da, Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Honako hau esatea:

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1.- Tasak zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortuko dira. Lizentzia edo jarduera emateko unean eskatuko dira likidazio-sistemaren bidez, tasa bakoitzaren berariazko arauetan -Ordenantzaren eranskinean jasotakoetan- kontrakorik xedatu ezean.

VII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua. Tasaren likidazioaren jakinarazpenarekin batera ordainagiri bat bidaliko da, banketxeren batean edo herritarrentzako arreta-zerbitzuaren bulegoan kuota ordaintzeko.

BIGARRENA.-

Autolikidazio sistema ezartzea ondorengo epigrafeetan:

1 ERANSKINA

HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK

Epigafe honi dagozkion tasak autolikidazio sistemaren bidez eskatuko dira zerbitzua eskatzen den unean, honako kasu hauetan:

- Leihatilan ematen diren obra txikiak egiteko lizentzia eskatutakoan ("obra txikiaren jakinarazpena" gisa ezagutzen dena).

2 eranskina

JARDUERA ZABALTZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO EDO, HALA BALITZ, KONTROL JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASA

Epigafe honi dagozkion tasak autolikidazio sistemaren bidez eskatuko dira zerbitzua eskatzen den unean, honako kasu hauetan:

- Erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak.
- Jardueraren titularra aldatzeko, baina jarduera ez baldin bada aldatzen.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

3 ERANSKINA

HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Epigafe honi dagozkion tasak autolikidazio sistemaren bidez eskatuko dira zerbitzua eskatzen den unean, honako kasu hauetan:

- Hirigintza konsultak.
- Eraikinen azterketa teknikoko (EAT) dokumentuak tramitatzea:

BIGARRENA.- Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrok egin ditzan.

HIRUGARRENA.- Aldaketa erabakia behin betikoa izango da, erabaki berririk hartu behar gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota inolako erreklamaziorik egin ez balitz.

6.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA (LEHENENGO ALDAKETA).

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Aldaketa horiek honako hauek dira:

A.- “SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA SOZIALA” izeneko 7. LERRO ESTRATEGIKOAN programa berri bat sortzea: ESKORIATZAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO EROSKETA BONUAK, COVID-19k eragindako kalte ekonomikoak arintzeko eta arlo hori suspertzeko helburuarekin.

B.- Programa hori finantzatu ahal izateko, beharrezko da ondorengo laguntza programak bertan behera uztea:

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

B.- "GIZATE EKINTZA" izeneko 3. LERRO ESTRATEGIKOAN JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA izeneko programa aldatzea Fundazioaren gaur egungo beharrei aurre egin ahal izateko.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- ERAGINIK GABE UZTEA ondorengo dirulaguntza programak:

E) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: FERIXA

HARTZAILEAK: Arizmendi Koop. Elkartea

HELBURUAk: Arizmendi Koop. Elkarteari diruz laguntza urtero antolatzen duen Ferixak sortutako gastuak finantzatzeko.

LORTU GURA DENA: Gastronomia, artisautza eta euskal folklorea protagonista dituen euskal feria tradizionala sustatu eta zabaltzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna.

2020ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.431.10.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

HARTZAILEAK: Axtroki Merkatari Elkartea

HELBURUA: 2020an, programaren jarduera lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorrita, elkartea herriko merkataritza sustatzeko antolatuko dituen jarduera eta proiektuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Eskoriatzako merkataritza dinamizatu eta indartzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Zuzena-izenduna.

2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 3.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.481.431.50.01

BIGARRENA.- "SUSTAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALA" izeneko 7. LERRO ESTRATEGIKOAN ondorengo programa sortzea:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ESKORIATZAKO MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUETARAKO EROSKETA BONUAK.

HARTZAILEAK:

- Egoitza soziala Eskoriatzan duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduen titular diren pertsona fisikoak eta juridikoak.
- Eskoriatzako herritarra.

HELBURUA: Eskoriatzako herrirrentzat erosketa bonuak prestatzea egungo egoerak kaltetutako herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetan gastatzeko.

LORTU GURA DENA: Herriko kontsumoa sustatzea eta COVID-19k eragindako kalte ekonomikoak arintzen laguntzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa.

2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 6.000 euro.

FINANTZIAZIOA: 0500.480.431.00.01

HIRUGARRENA.- "GIZATE EKINTZA" izeneko 3. LERRO ESTRATEGIKOKO JOSE ARANA PATRONATUARI DIRULAGUNTZA PROGRAMA honela aldatzea:

Honako hau dioen lekuan:

HARTZAILEAK: Jose Arana Patronatuaren Fundazioa.

HELBURUA: Egoitzan egingo diren obrak finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostan alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonei. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna.

2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000- euro.

Honako hau esatea:

HELBURUA: Egoitza egokitzeko obrak egiteko Fundazioak eskatutako eta finantza-erakundeek emandako maileguen amortizazioa finantzatzea.

LORTU GURA DENA: Jose Arana fundazioak ostan alternatiboa eskaintzen die, inolako irabazi asmorik gabe, zenbait gorabeherengatik beraien etxeetan bizitzen

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura

Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

jarraitu ezin duten edo jarraitzerik nahi ez duten adineko pertsonei. Eta, Eskoriatzako Udalak bereziki garrantzitsutzat jotzen du eskoriatzarren ongizaterako fundazioak bere jarduerarekin jarraitza.

DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna.

2020ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 8.000- euro.

FINANTZIAZIOA: 0300.481.231.91.01

7.- 6. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 6. expedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten bai aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 6. expedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Gastu partidak: transferitu gura diren kredituak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0300.781.231.90.01 2020	DIRU LAGUNTZA:PATRONATO JOSE ARANA	8.000,00	8.000,00	0,00
1 0400.481.431.10.01	DIRU LAGUNTZA:FERIXA	3.000,00	3.000,00	0,00

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2020				
1 0500.481.431.50.01 2020	DIRU LAGUNTZA:AXTROKI MERKATARI ELKARTEA	3.000,00	3.000,00	0,00
	GUZTIRA	14.000,00	14.000,00	0,00

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0300.481.231.91.01 2020	DIRU LAGUNTZA:P.JOSE ARANA.MAILEGUAREN F	0,00	8.000,00	8.000,00
1 0500.480.431.00.01 2020	DIRU LAGUNTZA:BONOAK	0,00	6.000,00	6.000,00
	GUZTIRA	0,00	14.000,00	14.000,00

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako trámite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

8.- “D2030-GARAPEN JASANGARRIRAKO SAREA”: sarera atxikitzeko hitzarmena sinatzea.

Ingurumen arlotik ondorengo dokumentuak aurkeztu dira batzordean:

- D2030 EGITASMO SUSTATZEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA
- PORTOFOLIOAREN ANALISIRAKO OINARRIZKO AURKEZPEN DOKUMENTUA.

Proiektu horren helburua Debagoieneko eragileak konektatzea da, denon artean eta proaktiboki XXI. menderako Debagoienak dituen erronka berriei aurre egitea ahalbidetuko duen mugimendua sortzeko.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Erronka horien aurrean eraldaketa sakonak bultzatu ahal izateko, beharrezkoa da askotariko proiektuak bultzatzea (proiektu komunitarioak, negozio-eredua duten ekimen txikiak, lankidetza publiko-pribatuan oinarritutako eskala handiko ekimenak, bai eta politika eta zerbitzu publikoen aldaketak ere) eta hainbat sektore edo eremutan eragitea (hezkuntza, jarduera ekonomikoa, sentsibilizazioa, finantzaketa, teknologia, etab.).

Horixe da portfolio estrategiaren muina: askotariko ekimenak sustatzea hainbat eremutan ikuspegi integral batetik, arreta berezia jarriz portfolioa osatzen duten ekimenen eta eragileen arteko loturari eta elkarrekintzari.

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingrumen batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorri, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- D2030 proiektua sustatzen duten eragileen arteko lankidetza hitzarmena sinatzea.

IZANDAKO PARTE HARTZEAK:

- Josu Ezkurdia: aurreko legealdian martxan jarri zen sare honek erakunde publiko eta pribatu arteko elkarlana bultzatzea du helburu, eta guk Udal bezala bat egin nahi dugu ekimen honekin, etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko.
- Nestor Aranak esan du bere taldeari oso interesgarria iruditzen zaiola ekimena, jakin badakitela COVID19k sortutako arazoak lehentasuna duela, baina klima-aldaketaren arazoa ere hor dugula. Bere ustez, gai honetan langileen zein ikasleen prestakuntzak garrantzi handia du, eta arlo horretan estrategia ona izatea funtsezkoa da. Amaitzeko, adierazi du proiektua interesgarria ere badela bailarako eragile sozioekonomiko desberdinak implikatzen dituelako, beren ahaleginak erronka bakarrera bideratuz, eta planteamendu horrekin erabat ados daudela.

9.- ESKORIATZAKO UDALEKO HAUR ESKOLA (0-3 URTE) ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA LUZATZEA.

2017ko ekainaren 27an Udalbatzarrak hartutako erabakiz, Haur Eskolako (0-3 urte, haur hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzua kudeatzeko kontratua ARIZMENDI S.COOP. enpresari esleitu zitzaison. Esleipenaren urteko prezioa 14.690 € zen, eta zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren, baldintza-agiri administratiboen eta teknikoen, eta esleipendunak bere eskaiztan proposatutako hobekuntzen arabera egin behar zen kudeaketa.

Kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izan zen, eta urtebeteko luzapen bat izan du, eta URTEBETEKO berariazko beste luzapen bat izan dezake alde biek horrela adostuz gero.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua urtebeterako luzatzea, izan ere, enpresak emandako zerbitzuak

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

beharrezkoak dira eskolaren funtzionamendu onerako, Eskoriatzako Udalak ez baitu langilerik lan horiek egin ditzakeenik.

Aurrez esandakoaren arabera, Euskara, Hezkuntza eta Gazteria batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Urtebetetuztenean, 2021eko abuztuaren 31ra arte, 2017ko ekainaren 27an ARIZMENDI S.COOP enpresari Haur Eskolako (0-3 urte, haur hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzua kudeatzeko esleitutako kontratua.

BIGARRENA.- Kontratua, luzatutako aldirako, 14.690 euro/urteko prezioan finkatzea.

10.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZA ERABILTZEKO EMANDAKO BAIMENAREN EPEA LUZATZEA.

Udalbatzarrak ondorengo erabakiak hartu zituen 2019ko ekainaren 26an:

Lehenengoa.- Gizarte Zerbitzuetako batzordeak 1397. espedientedun pertsonari gizarte larrialdietaarako etxea aldi baterako erabiltzeko behin-behineko emandako baimena berresteak.

Bigarrena.- ESKORIATZAKO UDALAK KUDEATUTAKO GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETXEAREN BARNE ERREGIMENEKO ERREGELAMENDUKO 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimenaren indarraldia luzatu ahal izango da, aldez aurretik horren beharra egiaztatzen bada, eta zerbitzuaren ardura duen gizarte langileak aldeko txostenetan egin eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak baimentzen badu.

Hartutako erabakiaren arabera, baimenak 2020ko urtarrilaren 31ra arteko indarraldia du.

Urtarrilaren 27an, interesdunak eskaera egin ondoren, Udalbatzarrak erabaki zuen baimena hilabetez luzatzea, hau da, otsailaren 29ra arte.

Covid-19k sortutako egoera dela eta, Alkatezaren martxoaren 27ko Erabakiaren bidez, bigarren lizapena eman zitzaion 2020ko maiatzaren 31ra arte.

Udal zerbitzu teknikoek txostenetan egin dute, interesdunaren egoera pertsonal, familiar eta ekonomikoa kontuan izanik beste lizapen bat egitea komenigarria eta beharrezko dela proposatzeko.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Datorren urriaren 16ra arte luzatzea, Udalbatzar honek 2019ko azaroaren 26an gizarte larrialdietaarako etxebizitza aldi baterako erabiltzeko emandako baimena 1397 espediente zenbakidun pertsonari.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea, Gizarte Zerbitzuen Informazio Batzordeak diktamena eman ondoren, etorkizunean egin daitezkeen lizapenei buruzko erabakiak har ditzan.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAAB48TH.wwC7>

2020/06/18

Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

11.- EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA.

Hitza eman ondoren, honako parte hartze hauetan izan dira:

- Josu Ezkurdia: "Gure ustez, horrelako dokumentua gure babesak adierazi beharko zuten, urtero ohi egiten den bezala. Ez dugu uste egin beharreko kontu zehatzak eztabaidatzeko osoko bilkura toki egokia denik, baizik eta horrelako proposamenak batzordeetan aztertu behar dira. Hori dela eta, kontuan izanda gizartea ez zuela ulertuko udal talde politikoek LGTBI mugimenduaren alde ez egitea, mozioa bertan behera uztea eta aurrerago beste dokumentu bat adostea proposatzen dugu."
- EH BILDUREN izenean, Eluska Irazuk esan du bere taldeak mozioa erretiratzen duela, eta berretsi du udal taldeek erabaki dutela ekainaren 28a baino lehen adostuko dutela gai horri buruzko adierazpen instituzional bat.

Gainerako bi udal taldeetako bozeramaileek hartutako konpromisoa berretsi dute eta Josu Ezkurdia EH BILDUK mozioa erretiratuta izan duen jarrera eskertu du.

Eta beste gairik ez dagoenez, 19:30ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 12 de junio de 2020 haciendo entrega de un copia del extracto de las mismas.

2- REVOCACION DE ACUERDO ANTERIOR Y DESIGNACION DE NUEVO MIEMBRO EN EL PATRONATO DE LA FUNDACION JOSE ARANA

Por acuerdo del Ayuntamiento en Pleno de fecha 23 de julio de 2019 Anabel Legaz Canflanca fue designada miembro del Patronato de la “Fundación Patronato José Arana de Eskoriatza-Jose Arana Patronatuko Fundazioa” (en adelante Fundación José Arana) en representación del PSOE.

Según se informó desde la citada Fundación, resultaron fallidos todos los intentos realizados con la designada para que se pusiera en contacto con representantes de la Fundación en aras a formalizar la inscripción del nuevo Patronato en el Registro de Fundaciones.

Hay constancia de que el pasado 22 de enero de 2020 la Fundación le notificó vía BUROFAX un escrito por el que se le advertía que si en el plazo de 15 días no se ponía en contacto la inactividad sería interpretada como renuncia al cargo.

Transcurrido el plazo anterior, desde la Fundación José Arana se ha hecho saber que ha hecho caso omiso a dicho comunicado.

Como quiera que la aceptación expresa del cargo, así como su posterior inscripción en el registro correspondiente, es un trámite preceptivo para el normal funcionamiento del Patronato, este Ayuntamiento, con fecha 29 de febrero de 2020, le notificó que se dejaría sin efecto el nombramiento efectuado a su favor por acuerdo plenario de fecha 23 de julio de 2019, concediendo al partido político PSOE, agrupación de Eskoriatza, un plazo de 5 días para que propusiera el nombre de otro candidato/a, advirtiéndole que transcurrido dicho término sin que se haya procedido a hacer la propuesta, se nombraría como nuevo miembro del Patronato a un representante de otro partido político con representación municipal.

Transcurrido también el segundo plazo concedido sin que por parte del PSOE se proponga otro candidato/a para miembro del Patronato de la Fundación José Arana, y

Visto el art. 7 de los Estatutos que rigen la fundación, que literalmente establece:

